

304

arrazoi garraio publikora igotzeko Ibarbengoako aparkalekua




ctb

bizkaiko garraio partzuergoa
consorcio de transportes de bizkaia

Mugitzeko beste modu bat

Bizkaiko Garraio Partzuergoak (BGP-CTB) hasiera emango dio aurten 304 plaza estali, horietako zazpi mugikortasun urria duten pertsonentzako erreserbatuta, izango dituen Ibarbengoako aparkalekua. Azpiegitura publiko horrek, Getxoko eta Bilboko Metroaren sareak lotutako gainerako udalerrietako hiriguneetara heltzeko modu azkarra, segurua eta merkea eskainiko du, garraio publikoaren erabilera sustatuz.



Sar zaitez ctb.eus helbidean eta ezagutu proiektua!

Abantailak baino ez

DISEINU INTEGRATZAILEA

Aparkalekua geltokian eta Andra Marin integratuta geratuko da, soslai baxuko diseinuarekin. Aparkalekuak izango dituen hiru solairuetako bi lur azpian egongo dira.

APARKALEKU MERKEA

Oso tarifa onak eskainiko ditu. Soilik 70 zentimo ordainduta, ibilgailua egun osoan utzi ahal izango duzu, metroaren ordutegiak errespetatzen badira eta garraio hori erabiltzen bada. Guk automobila estalian gordeko dizugu eta metroaren maiztasun hoberenak eskainiko dizkizugu.

INGURUMENA



Bilboko Metroaren laugarren aparkalekua izango da, Leioakoaren, Etxebarrikoaren eta BEC-ekoaren ondoren. Gero eta onarpen maila altuagoa duen konbinazioa da –garraio publikoa eta automobila–. Aparkalekuei esker, 2014an gure errepideetatik 300.000 ibilgailu kentzea lortu zen. Zarata eta kutsadura gutxiago gure herri eta hirietarako eta ingurumenerako.

SARBIDE HOBEAK

Trenbidearen trazatuarekin paraleloan joango den eta Ormazako Bidearekin lotura izango duen errepedetik helduko da aparkalekura, eta horrela, bide horren eragina ahalik eta txikiena izango da. Uribe Kostako edozein herritik metroarekin lotura izateko aukera egongo da. Horrez gain, metroaren eta bizikletak alokatzeko Bizimeta zerbitzuaren artean ere konbinazioa egin ahal izango da.

GETXOKO ZAZPIGARREN GELTOKIA

Aparkalekuaren eraikuntzari esker Ibarbengoako geltokia zerbitzua ematen hasi ahal izango da. Lur azpiko trenak Getxon izango duen zazpigarren garelakua izango da, eta Andra Mari auzoa Euskadin gehien erabiltzen den garraio sistema publikoarekin lotuko du.



Informazio gehiago: ctb.eus